



K bulegoa

saio irekia

Belaunaldi berriek nola sortu eta garatzen dute kultura?

2023ko apirilaren 4a

—

sesión abierta

**¿Cómo crean y desarrollan la cultura
las nuevas generaciones?**

4 de abril de 2023

K
BUL
EGO
A



Saio irekia.

Belaunaldi berriek nola sortu eta garatzen dute kultura?

Azpeitira joan ginen. Gogotsu geunden Dinamoa bertatik bertara ezagutzeko eta aukera paregabea izan genuen apirilaren 4an. Gazteekin lan oso interesgarria egiten ari baitira Urola Kosta aldean.

K bulegoan kultur sektorearentzako arreta eta bidelaguntza zerbitzuak gazteengana gerturatzeko lanean dihardugu. Ildo horretan, Gipuzkoako Foru Aldundiak hainbat lerro abian jarri ditu azken urteetan, hala nola Egile sariak, sorkuntza sustatzeko deialdia; Egile Plus erakusketa zikloa, eta Kultura Eskola programa, DBHko nerabeei artea eta kultura ondarea ezagutarazteko ekimena.

Gure sorpresa izan zen Azpeititik eta inguruko herrietatik bertaratu zirela eragileak. Proposatutako gaiak arreta piztu, eta hainbat lan esparrutan ari diren kultur eragileekin solasaldi benetan inspiratzailea bizitu genuen.

Azpeitia, Zarautz, Donostia, Oiartzun, Errenteria... Udal kultur kudeaketa, eskultura eta zeramika, bitartekaritza artistikoa eta kulturala, hezkuntza artistikoa, zientzia eta artea... Herrietako kulturgintza, auzolana, teknologia... Erpi ugariri heldu genien saioan zehar. Oraingoan, elkarriketara bildu ziren, besteak beste, kultur teknikari bat, museo bateko hezkuntza bitartekari bat, institutu irakasle bat, eta zenbait artista eta kultur kudeatzaile.

Nork bere buru aurkeztu ondoren, K bulegoko bitartekaria Ixiar Garcia hausnarketa zenbait mahaigaineratu zituen, zukua eta galletak bikoteak lagunduta.

- Desberdintasunik baldin bada belaunaldien artean, kultura eta artea sortu eta garatzeko moduetan, zeintzuk dira ezberdintasunak?
- Nola uztartu barneratuak ditugun moduak, ohitura bihurtu ditugunak eta egun egiten diren lanketak berriak?
- Zer litzateke lagungarri modu berriak eta barneratutakoak elkarri aberasteko?

Kalea, eskola, etxea, kulturguneak, sorkuntza espazioak, komunikazioa, entzutea, adierazpenak, erreferentzia berriak, baliabide berriak eta abar izan ziren ukitu eta dastatutako gaietako batzuk.

Dinamoko langileek eskaintza oparoa egin ziguten sustatutako jardunbideen berri emanez. Ederra izan zen erronka bakoitzaren ondoan, lantzen ari diren ekimenak ezagutzea, hainbat lanketarekin esperimendatzen ari dira-eta gazteengana gerturatzeko asmoz.

Arratsalde hartan partekatu genituen erronken artean honako hauek azpimarratzen ditugu: udal gehienetan kultur eremuetan oraindik arloka lan egiten da eta horrexegatik gaien arteko zubi asko oraindik erikitzeke daude. Batzuetan, Euskara arloak Berdintasun arloarekin lan egiten du, baina ez kultur arloarekin. Zergatik ez? Eta Gazteria saila Kulturakoarekin, nola ez, bada?

Oraindik 14-18 adin tartekoentzat dagoen kultur eskaintzan badira hutsuneak. Gainera egun ez ote dute gazteek estimulu gehiegi jarduera edo programa bakar batean barneratu ahal izateko? Ez da asmatzen haiekin nola konektatu. Eskola eremuetan egiten diren interbentzio edo lanketa puntualak bainoago, ez ote da hobe jarduera hauei jarraipena ematea?

Sortzeko moduak aldatu omen dira, bai ala ez? Gehiago dago kontsumitzeko? Gehiago sortzen al da? Kalitateari erreparatuta, zer? Denak ez omen du balio...

Hezkuntza sistemak oraindik nola baldintzatzen dituen sorkuntza artistikoa eta kulturala, dagokion zilegitasuna ez duenez oraindik, bigarren edo hirugarren aukera izaten jarraitzen du, hizkuntzak eta kirolak lehenesten dira ia beti.

Benetako askatasunean sortzen ikasten dugu edo gidatuak izaten da gure sorkuntza, bestela esanda, ohikoa dena, publikoak espero duena egiten dugu gehienbat besteak asebetetzeko?

Krispeten hotsak eta usainak hartu gintuzten bat batean... Dinamoan hainbat sorkuntza prozesu ematen dira aldi berean, batzuk sortzen, besteak ikasten, besteak ikertzen... Bertako eragile bat sukaldean zegoen gu solasean geunden bitartean, bere atsedenean edo... krispetak jaten). Agian egokia izan daiteke ikuspegi zabal eta aniztun hori, gazteentzat egokiagoak diren gako berrietan lan egin ahal izateko.

Bat-batean Dinamoan Artelekuk zuen zera hura sentitu genuen nolabait. Eta batek baino gehiagok esan zuen: "Arteleku egun Dinamo da".

Baliabideak eskura jarri behar dira, eta gazteen lengoia eta moduak ondo ezagutu... Dinamo bezalako gune batek esperimenez bidea zabaltzen die gazteei, eta horrek, mugarik gabe jarduteak, berebiziko garrantzia du.

Beharra sentitu da baliabideen gida bat osatzeko, begi kolpe batean ikusi ahal izateko zer eskaintzen den gazteentzat, noiz eta nola, zer baliabide dagoen eskuragai.

Ematen du trantsizio garai batean gaudela, etengabe. Gakoa da nola izan bidelagun, baina gidatu gabe, haien autonomia bermatu eta haien adierazpena ahalbideratuz. Agian, gazteak baino gehiago, ez al da hobe pertsonak bezala tratatzea, bereizketarik egin gabe?

K
BUL
E
GO
A



**Kulturari adi /
Atención a la cultura**

943 11 33 43 · kbulegoa@gipuzkoa.eus

Santa Teresa komentua
Elbiria Zipitria 1
20003 Donostia
Gipuzkoa

Sesión abierta.
**¿Cómo crean y desarrollan la cultura
las nuevas generaciones?**

La cita era en Azpeitia. Estábamos muy entusiasmadas de conocer de primera mano Dinamo y tuvimos una oportunidad única el 4 de abril. Porque están haciendo un trabajo muy interesante con la comunidad de jóvenes de la comarca de Urola Kosta.

Desde K bulegoa trabajamos para acercar los servicios de atención y acompañamiento al sector cultural a la juventud. En esa dirección, la Diputación Foral de Gipuzkoa ha puesto en marcha en los últimos años líneas de ayuda como los Premios Egile destinados a la creación, el ciclo de exposiciones Egile Plus y el programa Kultura Eskola, una iniciativa para dar a conocer el arte y el patrimonio cultural a adolescentes de la ESO y llevarlo a los institutos.

Nuestra sorpresa fue encontrarnos con agentes que se acercaron tanto desde Azpeitia como de pueblos cercanos. Introdujimos los temas propuestos y animamos lo que fue un diálogo verdaderamente inspirador con personas de diferentes ámbitos de trabajo.

Azpeitia, Zarautz, Donostia-San Sebastián, Oiartzun, Errenteria... Gestión cultural municipal, escultura y cerámica, mediación artística y cultural, educación artística, ciencia y arte... La cultura popular, el trabajo vecinal, la tecnología... A lo largo de la sesión abordamos varios aspectos con personas provenientes de la gestión cultural municipal, de la mediación educativa museística, de la docencia en institutos y también del campo de la creación artística y la gestión cultural.

Después de las presentaciones, la mediadora de K bulegoa, Ixiar Garcia, planteó un par de reflexiones, acompañadas de zumo y galletas.

Si existen diferencias generacionales en las formas de crear y desarrollar la cultura y el arte, ¿cuáles son exactamente esas diferencias?

¿Cómo combinar las formas de hacer que tenemos interiorizadas, que hemos convertido en costumbres, y las formas novedosas de hoy en día?

¿Qué sería útil para enriquecer mutuamente las formas nuevas y las formas arraigadas?

La calle, la escuela, la casa, los espacios culturales, los espacios creativos, la comunicación, la escucha, las expresiones, las nuevas referencias, los nuevos recursos... de todo eso y más tratamos durante la conversación abierta.

Las personas responsables de Dinamo nos hicieron un relato de la amplia oferta de planes y actividades de la comarca. Fue estupendo vincular los retos que identificamos con las iniciativas que se están llevando a cabo en Azpeitia, líneas de trabajo que experimentan y arriesgan con el fin de acercarse al público juvenil.

Entre los retos que compartimos aquella tarde destacamos el hecho de que en muchos ayuntamientos aún se trabaja en áreas muy compartimentadas, por lo que muchos puentes están por resolver en los ámbitos culturales para ofrecer soluciones a retos de carácter transversal. A veces el área de Euskera trabaja con el área de Igualdad pero no con el área de Cultura. ¿Por qué no? ¿Y por qué no Juventud con Cultura?

La oferta cultural para jóvenes de 14 a 18 años presenta aún carencias. ¿Además hoy en día las personas jóvenes no tienen demasiados estímulos para que puedan acceder a una sola actividad o programa? No se da con la forma de conectarse con ellos. ¿No es mejor dar continuidad a este tipo de actividades más que a las intervenciones puntuales que se realizan en los espacios escolares?

¿Se han cambiado las formas de crear, sí o no? ¿Hay más para consumir? ¿Se genera más? Si analizamos la calidad de las propuestas... Dicen que no todo vale...

El sistema educativo sigue condicionando la creación artística y cultural, al no contar aún con la correspondiente legitimidad, sigue siendo una segunda o tercera opción, donde las lenguas y el deporte son siempre prioritarios.

¿Aprendemos a crear en libertad o más bien nuestra creación es guiada, es decir, tendemos a hacer lo que es habitual, lo que el público espera y lo hacemos para satisfacer esa expectativa?

De repente nos envolvió el olor a palomitas, y su crepitar nos hizo pensar... En Dinamoa se dan varios procesos creativos a la vez, unos creando, otros aprendiendo, otros investigando... Una persona estaba en la cocina mientras estábamos hablando, tal vez era su momento de descanso y comía palomitas. Tal vez una perspectiva amplia y diversa es lo que se necesita para trabajar en nuevas claves más acordes a las necesidades del público joven.

De alguna manera sentimos que Dinamoa recoge algún aspecto que tenía de Arteleku.

Hay que poner a disposición los recursos y conocer bien los lenguajes y modos de las y los jóvenes... Un espacio como Dinamoa abre el camino a la experimentación, les permite actuar sin límites, y eso es vital.

Se ha sentido la necesidad de elaborar una guía de recursos para poder ver de un vistazo qué se ofrece a las y los jóvenes, qué recursos están disponibles, cuándo y cómo.

Parece que siempre estamos en una época de transición. La clave está en cómo acompañar en el viaje, pero sin conducir, garantizando su autonomía y posibilitando su expresión. ¿Quizás, más que como jóvenes, no sería mejor tratarles como personas, sin distinciones?



Kulturari adi /
Atención a la cultura

943 11 33 43 · kbulegoa@gipuzkoa.eus

Santa Teresa komentua
Elbiria Zipitria 1
20003 Donostia
Gipuzkoa